

Hondarribiko merkatariak XVIII. mendean Cadizen



Salvador Carreras y Cuatrecasas

REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS

*EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN
ELKARTEA*

BOLETIN

LV

2

1999

*Euskalernan
Adiskideen Elkarteko
argitarapenean gure
herriari buruzko datu
ugari agertzen dira*

Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País – Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko azken *Boletín*-ean (LV, 2. alean, 1999,) agertu du Jose Garmendia Arruabarrenak lan jakingarri bat, Cadiz-en XVIII. mendeko testamentari artxibategian aurkitu dituen hondarribiar merkatariari buruzkoa. Ikus *Boletín* horren 475-477. orrialdeetan. Ez da ikertzaile horren lehen lana, zeren lehenago ere Sevilla-ko artxibategietatik lan ederrik eskaini zigun.

Garai hortan Cadiz-en merkataritzan zebiltzanak, beraien jaiotz tokiak kontutan harturik, 58 omen ziren bizkaitarrak, beste 58 gipuzkoarrak, 30 nafarrak eta 10 arabarrak.

Horiek, Ameriketarako salmentak zituzten oinarri eta merezi du hemen beraien berri ematea, testamenduetan agertzen diren bezala jarritz. Han bertan datoz agiriaren xehetasunak, baina aspergarri ez egiteko, agirion gainerako xehetasun horiek ez ditut aipatuko, zehatz jakin nahi duenak bertara jo ezinik ez bai du.

Esan beharrik ez dut gehienek Hondarribia bertako deiturak dituztela. Eta hemen, nahasterik ez sortzeko, izen-deiturok garai hartako grafian dauden bezelaxe transkribatzen ditut.

Beretarik lehen, Miguel Antonio **Ariusmendi** da, 1750. urteko uztailaren 30ean egin zuen testamenduaren arabera. Nonbait, deitura hori gaizki jaso da. Seguruenik Arizmendi izan zitekeen, bere ondotik aipatzen denaren bezala.

Bigarrena, hiru urte geroago, **Agustín Arizmendi** da, 1753ko uztailaren 19an.

Ondotik datoz beste honako hauek:

Manuel Antonio **Aznares**, 1757ko urtarrilaren 9an. Indietako merkataritzan matrikulaturik agertzen omen zen 1736. urtean. Deitura Bortserrietakoa izan behar du.

Francisco de **Echaleku**, 1753ko azaroaren 20an. Baina, Cadiz-en omen zen 1707.an. Deitura hau bortserrietakoa dela esango nuke.

Juan Francisco **Echeverria Añorga**, 1752ko maiatzaren 6an.

Josefa Antonia **Gayoso**, 1775eko azaroaren 2an. Gabriel de **Gavoso** agertzen omen zen

matrikulaturik 1730ean. Hemen ere, deiturak idaztean, okerren bat dago.

Pedro Felipe **Goicoechea**. 1758ko apirilaren 3an. Itsasontziko kapitaina zen eta "Cofradía vasca"koa 1692-1724. urteetan.

Domingo **Sorondo**. 1755eko urriaren 13an. Esan beharrik ez dut Sorondo deitura hondarribiarra dela.

Juan Antonio **Sorondo**, 1753ko azaroaren 25ean.

Juan Ignacio **Sorondo**, 1750eko apirilaren 4an.

Juan Antonio **Zabaleta**, 1758ko azaroaren 25ean.

Juan Bautista **Zuloaga**, kalonjea eta Torre-Altako kondearen anaia, 1758ko martxoaren 30ean. Izatez, Torre-Alta markesa zen eta bere ondotikoak, Aristegi deiturakoe-kin, Llobregat konde tituludunak.

Horien ondotik Irungo bi eta Pasaia-ko lau datoz.

Juan Bautista Zuloagaren beste aipamen bat dator, 1738koa, *Boletín* berean, 480. orrialdean, Euskal Herritarrak Cadiz-en biltzen ziren Hermandad de la Humildad y Paciencia zeritzan elizaren arduradun bezala.

Bi mende t'erdiko agiriak direnez, oraindik horrelako deiturok dituzten zenbaiti, behar bada ez zaio hain nekeza izango arbasoen agirietatik loturaren bat aurkitzea. Dena dela, beti dira interesgarriak horrelako agiriak.

Eta hemendik bijoaz gure eskerrak Jose Garmendia Arruabarrena jaunarentzat, bere lanok gure historiarako hain baliagarriak ditugunez.

JUAN SAN MARTIN